

Funtsezko Jarduerak

Alde batetik, gure funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, manufaktura-enpresa bat da, lentilla permanenteak ekoizteko eta entregatzeko betekizunak dituena. Lentillak egiteko erabiltzen den materiala hidroxietil metacrilatoa (plastiko biguna) da. Plastikoa horrek hidrogeles osatuta dago, adarabalara oxigenoa igarotzea uzten duena. Prozesu guzti hau egiteko makinak erabiltzen ditugu. Makinak plastiko biguna zati txiki txikietan mozten dute, lentilla perfektuak lortuz. Azkenik, iraunkorrak izateko lortzeko, izozkailu klimatizatu batean sartzen ditugu 30 egunez. Aldiz, lentillak mantentzeko beharrezkoak izango diren produktuak (likidoak...) kanpo-jarduerak izango dira eta beste enpresa batzuk egingo dituzte.

Bestetik, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere. Gaur egun, globalizatuta dagoen mundu batean, Internetez dena egiten dela, tontakeria izugarria izango litzateke webgunerik eta on line dendarik ez izatea. Gainera, gure kasuan, salmenten irabazien %75 on line dendatik datozte. Gure webgunean ikusi al duzu enpresak erabiltzen dituen material guztiak, ekoizpenaren prozesua, natura errespetatzeko hartzen ditugun neurriak, etab. Hori gutxi balitz, bazkidea izan ahal zara eta beherapen zoragarriak lortu gure produktuan.



